



Erreferentziako txartela:
Finantza-txartelen erraztasun guztiakin eta gainera...

Bidaia-asistentziako doako aseguruabantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

beirri

Lege gordailug: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2006ko apirila
87. zkia. Doan

Traka Barraka
Txurdinaga futbol taldea
Zurbararock

ITZIAR GONZÁLEZ

"Jamaika paradisua izatetik oso urrun dago"




Begoña (1960)

Airetik atarata dago goiko argazki hori. Gitxi gorabehera, 1960 urtean. Begoña-ko tunela eta Zumalakarregi etorbidea egiten dabilz. Beherago, Etxebarria fabrikako zati bat ikusten da. Begoñako gainerako lur-sailak soloez, jauregiez eta Dolaretxeko auzoaz beteta dagoz. Atzerago, Txurdinagako solo eta baserriak eta, are atzerago, Otxarkoaga. Eskuinean, Santutxu be nahikoa hutsik. Zumalakarregiz bestaldean, lehenengo etxe berriak, Lasa jatetxearena-eta. Eskuineko behealdean, Gurutze auzoa.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia4	▶ Mahatsberriak20
▶ Traka Barraka5	▶ Kirolak24
▶ Begoña eta euskera ..	.8	▶ Gasteran mendia25
▶ Zurbaranbarriko jaiak10	▶ Hezkuntza26
▶ Aereografia12	▶ Euskararen Astea28
▶ Elkarrizketa: Itziar González15	▶ Horoskopoa/Agenda30
▶ Inkesta19		

Ez dakitt zer dan, baie Bertonen artistak atara ta ataradabil azkenokaz. Mahatserridxe Parisen modukoa dago paraten.

Bateko gerra denboran umien ospizidoko hormetan koadroak pinttatu zeittuzen batenak. Gizona gurasoak galduneko umiek gusture gure ixin ta etzie alaittu egin otzien. Intentzinoa ona, baie ostien etor ziren batzuek intenziñoak halangoak ez ta pintturek kendu. Buzterridxe ta fletxak ganien pinttau ez zotzienien be?

Neska bi bertokoak arropie erropie diseñatan ta saltzen hasidirez. Mimoa ta maittasunegaz gauze elegantie egin, ta akabuen erosten dabenak jantzi, gastau ta bota,? Hone-nak be ez dau museoan akabauko.

Beste bat be badago, hau be pinttorie, baie hau pintto-re pistoleroa, pistoliegaz pinttaten dabena. Da honek pinttaten deittuzenak be galtzekoak ixingo dira gehidxenak, ULEk kentzen ez badotzaz pinttau daben kotxiak desguazean akabauko dau. Baten bat gordeko dau, baie honek be gehidxenak galtzeko eitten deittuz.

Artisten kontuegaz segidute, Zurbaranen eingo daurie rockfestibala aurton be. Eta musikie be bada galduteko artea, momentuen egin, jo ta segiden airean joaten da. Galduten diren artean oingo Bertonen. Hamen auzunean aspaldidixen komentau genduan arteak ez dekola bide luzerik, geuze zaharrak bota edo kendu eitten direz, ez dekogu momumenturik, gaur ikusteko modukoa dana bid-xer kendukote. Halan da ze, honeik artista guztidxok esan leike Mahatserriko eskolakoak direzela plenamentien. Tradiziñoa be badekogule esan lei. Estiloak bakotxak berana edukingo dau, baie destinoa danak bardine, obrie galdutie.

Tire ba, Bertonen artistak aparte Jamaikara lagunduten joan dan neskie be atara daurie, harek diño han Jamaikan Bob Marley-n kuadrilie, regeskatafandango ta ganja eurrez barik jentie jodidute dabilela ta ha ez dala txurrero askok imajinaten dauriena inondik inora be. Ha be artiste ixin barik obrie eitten dabil, baie hau obrie ez daittela ixin Mahatserriko eskolako, hau de, ez daittela galdu.

GURE BAZTERRAK

TXOMIN GARAT KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Txurdinagako auzunean daukagu etorbide hau; izan bere, kale honeri, 1983. urtea arte, Vicente Mortes eretxi eutsen. Beraren ibilbidea Jesus Galindez kalean hasten da, eta Birjinetxe plazaturaino doa, Ornilla osagilearen kalean zehar.

Kalearen izena Domeniku Garat Hiriarterena da; Ipar Euskadiko agintari garrantzitsua izan zan. Lapurdiko Uztaritze herrian 1735ean jaio zan, eta herri berean 1799an hil. Bera legegilea izan zan, eta Bordeleko Parlamentuan izan zan herri-ordezkarria; erakunde horretan nabarmendu zan baltzen

salerosketaren aurkako aldarriak behin eta berrero egin zituzalako.

1789. urtean Estatu Orokorretarako deialdia egin zan, eta bera eta beraren anaia Joseph aukeratu zituen Hirugarren Estaduaren izenean; eurek aldeztu eben Lapurdiren beregaintasuna, Frantziako Konstituzinoaren joera bateratzailearen aurka. Frantziako Iraultzaren aldekoak jazarri jakozan, eta kartzelan sartu. Harrezkero, bertan behera laga eban bizimodu politikoa. Robespierre uzkaile ebenean, Txomin Garat askatu eben, eta azken urteak bere herriko udalean jardun eban herri-ordezkarri legez.

GOTZON LOBERA REVILLA



ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Nereiz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2006ko apirila - 87. zkia.

AMESTUTAKO JANTZIAK

MAHATSORRI BI MODA DISEINATZEN HASI DIRA
TRAKA BARRAKA IZENPEAN

Testua: Itxaso Perez

Argazkiak: Iñigo Azkona eta Traka Barraka

Mahatsorri neska gazte bik ausardiaren ausardiaz oihalak, artaziak eta jostorrazak hartu eta erduekin apurtzen duten kolorez betetako jantziak sortu dituzte. Norentzat? Janzten ausartzen den edonorentzat. Traka Barraka dira.



Uribarriko Olatz Ezkiroz eta Otxarkoagako Iratxe Ostolozaga diseinuaren munduan sartu dira berriki, mundu hori zer den ideia txiki bat baino ez zeukabela. Bizitzaren gorabehera batek elkar-tu zituen iaz, Korrika pasatu ostean. Mundu diferenteetatik zetozen, baina zer edo zer aurkitu zuten elkarrekin abentura honekin hasteko.

Iratxe Ostolozagak merchandising arduraren hartu zuen Korrikaren antolaketan, eta Olatz Ezkiroz, berriz, diseinua ikasten hasita zegoen. Olatzek Iratxeri desfile batean parte hartzeko laguntza eskatu zion. Korrikan ezagutu zituzten diseinugile batzuekin kontaktuan ipini, eta halako batean eurak ere arropa sortzen hasi ziren. Astia alferrik galdu barik jardun dute eta hemen dauzkagu hirugarren bilduma (kolekzioa) kalean dutela.

BAT-BATEAN

Bizitza horrelakoa izaten da batzutan. Orain dela urtebete, ez bata ez besteak ez zuten inola ere imajinatuko gaur emakume enpresariak izango zirela. Orduan inork esan izan balie egoera honetan egongo zirela, ez zuten sinistuko. Baina egia da: jantziak diseinatuz ateratzen dute bizimodua. Bakoitzak berea utzi eta horren alde egin du postura.

Kalean bilduma edo jantzi multzo bi daukate salgai, azkena 2006ko udagoiena-negukoa. Urtean bi bilduma ateratzen dituzte, udazken-negukoa eta udaberri-udakoa. Orainxe hirugarrenarekin ari dira lanean. Sortzen ari dira, hurrengo udaberri eta udari begira.

ALAIK, BIZIAK...

Koloretsuak izaten dira euren jantziak. Forma aldetik ere ahalegintzen dira ez daitezela betikoak izan. Apur bat orjinalak izateko grina hori daukate, ausartak, betiko janzkeraz apurtzeko asmoz. Eurentzat jantzea jai bat da. Gaur egun herritarrak janzterakoan nahiko uniformizatuta daudela uste dute eta hortik ateratzen ahalegindu dira.

Eta zer diseinatzen dute? Denetarik, esan ahal da: gonak, alkandorak, soinekoak, kamisetak... osagarriren bat ere bai. Hori bai, ia gehiena neskentzat baina bidea aurrera egin ahala eskaintza zabalduko dutelakoan daude. Une honetan lan handia eskatzen die bilduma bat sortzeko prozesu osoak eta



horixe da arrazoia eskaintza murrizta izateko.

Dena dela, bere proba txikiak egin dituzte euren buruekin. Adibidez, zapata zahar batzuei hainbat aldaketa bitxiak egin, apaingarri biziez jantzi eta zeharo ezberdinak dirudite. Gero, eurek jantzi, kalean jendearen iritzia jaso eta horren arabera erabakia hartu egin dute.

Ez da erreza jantzi bat diseinatzea eta gero eginda ikustea. Hona hemen egin beharreko pausuak: ideia pentsa-

tu, oihal egokiak bilatu eta prezio 'merkean' aurkitu -antza, ez daude batera merke-, patroia egin, josi, erakusteko prototipoa egin, muestra hori saldu, eta behin salduta, ekoiztu egin dute. Prozesu osoa eskuz egin dute.

Ondoren datorrena, hau da, ale kopuru handia produzitzea, enpresa handietan egin dute, osterantzean ezinezkoa litzateke-eta. Enpresa horietan, batean oihala ebaki, bestean josi, hartan plantxatu... eta kontaktu asko behar dira enpresa horietan dena bate-

ra egin ahal izateko, dena ondo 'kuadratzeko'.

NON

Jantziak ekoizteko materialaren prezioaren arabera ateratzen da saltzeko prezioa, eta oso garestia bada ez da ezertxo ere salduko. Eta hori ez zaie komeni, jakina. Kompetentzia handia da, arropa asko saltzen duenak ekoizpen prezio txikiak izaten dituelako. Traka Barrakako jantziak Euskal Herrian ekoiztuta daudenez ezin daitezke horren merkeak izan. Oihalak merke erosteko Bartzelonan, Madrilen... erosi behar dituzte eta orain gutxi ordezkari batzuekin hasi dira harremanetan hornitzaile handiekin lan egin ahal izateko.

Izan ere, orain arte eurak biak ibili dira autoarekin hara eta hona, Euskal Herri osotik, dendaz dendara. Orain komertziala hartu dute eta Euskal Herriaz gain Estatu espainoleko hainbat dendatan (Madrilen, Granadan, Galizan, Leonen, Asturiasen) euren jantziak saltzen dituzte.

Euskal Herria aipatzen dugunean, Iparralde ez dugu berez sartu. Horrek argipen txiki bat behar du. Bertara laster zabaltzekotan daude, baina eragozpenak handiagoak dira muga hortxe segitzen duelako.

DENDA BE BAI

60 hamarkadaren estilotik atera dituzte zenbait ideia jantziaren diseinuan.



Eta zer diseinatzen dute? Denetarik, esan ahal da: gonak, alkandorak, soinekoak, kamisetak...

Baina bidea zelan egin eginaren egin ez ikasten ari dira oraindik. Mundu horretan sartu arte ez zuten horretaz bizitzeko beharra edo aukera ikusi ere egin.


Posturak egiten hasita, nahikoa handia egin dute Bilbo Zaharrean dendara bat zabalduz. Izan ere, egun modako arropa dendarik ez dago alderdi horretan. Alde Zaharrean bai,

ordea. Dos de Mayo kalean ireki dute. Baina dendara eta jantziaren ezaugarriak begira gune aproposa dela uste dute Olatz eta Iratxek. Eurek sortutako jantziak salgai paratuko dituzte, baita beselakoak ere, eta gainera dendara izateaz gain tailerra izango da. Egundean egiten dute lan, josteko makina bakar-rarekin batetik bestera dabiltzala... eta 'ez da plana' pentsatu dute, ezin dutelako 'deskonektatu' inoiz, lana etxera 'eramaten' dutelako.

Datozen hiru urteetan diru gutxi ikusiko ei dute, hori baita epea etekin garbiak atera ahal izateko, adituen arabera. Ez zaie asko ardurara, momentuz, edo hobe esanda, nahiago dute horretaz ez pentsatzea. Egiten dutena gustuko dute, asko disfrutatzen dute horretan eta horrela izaten segitzea gustatuko litzateke.

Desfilearen bat egin dute (Creamodan, BECearen), baina horiek oso ondo prestatu behar direnez, eta orain galtza bete lan dabiltzanez, gerorako utzi dute. Dena den, 'Modorra' desfilean sartzeko aukera lantzen ari dira, batez ere, desfileetan ez delako arropa hain komertziala azaldu behar. Gainera, orain arte egin dutena antzerkiarekin lotu dute, ez dute modelorik erabili eta oso dibertigarria suertatu zaie horrela egitea.

Aipatu ez duguna da ze jende modurentzat diseinatzen duten arropa. Edonorentzat, printzipioz, baina erosten duen jende gehiena neskek eta gazteak izaten dira. Euskal Herriko hainbat dendatan salgai dute euren bilduma.



BEGOÑA ETA EUSKERA

Victor Landeta pintore handi bezain ezezaguna da gure artean. XX. mendeko bilbotar margolari horren bizitza eta lana agerian laga berri du Xabier Saenz de Gorbea kritikariak liburu baten. Eta haren bidez jakin dugu badaukala eduki Santutxugaz lotzen duen istorio bitxi bat. Gurean pintatu zituen bere muraletako batzuk. Zorigaitzez, amaitu aurretik galdu ziren eta euren arrasto txiki batzuk baino ez dira gelditu.

VICTOR LANDETA ETA SANTUTXUKO MILIZIARREN UMEZURTZEN ETXEA

Jon Etxebarri kazetariak jarri gaitu pistaren atzetik. Orain gutxi plazaratu du Xabier Saenz de Gorbeak 'El pintor Víctor de Landeta (1905-1966)' liburua. Helburu nagusia, bilbotar margolari horren lan handia lau haizetara zabaltzea da, nahikoa ezezaguna da-eta. Bada, hala ere, bere ibilbidean gurera estu-estu lotzen duen pasadizo bat.

Gerra zibilaren garaietara jo behar dugu. Eusko Jaurlaritza osatu berriko Hèzkuntza sailburu Juan Graciak Euskal Artisten Elkarteari zeregin berezi bat eman zion. Santutxuko karmeldar mojen komentua zena miliziarren umezurtzen etxe gisa atontzen ari ziren. Lokalean muralak pintatzeko eta bazterrak apaintzeko eskatu zien.

Erantzuna itzela izan zen eta horri esker sasoi hartako euskal artisten ordezkaritza ederra batu zen behar hori egiteko. Hiru eskultore -Manuel Basterra, Joaquín Lucarini eta Moisés Huerta- eta margolari koadrila handi bat: Antonio Gezala, Julian Tellaetxe, Isidoro Ginea, Arruetarrak, ... Sasoi hartako izen erreferentzialak. Eta euren artean, Victor Landeta.

Landeta Eduardo Landeta Aburto bilbotarraren



Victor Landeta gaztetan. Bere buruari egindako erretratua.

semea zen. Bere aita, besteak beste, kulturgizona eta EAJko buruzagia izan zen. Semea berehala hasi zen margotzen eta berehala Euskal Artisten Elkartearen sartu zen.

Santutxuko proiektura itzuliz, umeentzako leku atsegina sortzeko asmoari modu berezian erantzun zion Landetak. Alegiak aukeratu zituen zeregin horretarako. 1936ko abenduan bere proiektuak aurkeztu zituen. Bozetoak ziren eta gainerako artistekin batera erakusketa baten bildu zituzten Carlton hotelean. 'La zorra y el cuervo', 'La liebre y la tortuga' eta 'El abuelo contando cuentos a los nietos' izan ziren bere lanak.

Behin lanak egiteko prest, pintatzen hasi zen. 1937ko lehenengo hila-beteak bertan eman zituen, Santutxuko lokal hori atontzen. Sasoi hartako


prentsan behin baino gehiagotan agertu zen, txapela buruan eta buzoa jantzita, hormetan bere muralak pintatzen.

DENA GALDU

Jakina denez, 1937an gerrak bere legea ezarri zuen. Faxistak Bilbotik gero eta hurrago zeuden eta azkenean Santu-

Santutxu, 1936


Bitor Landeta, Miliziarren Umezurtzen-
tzako Etxea pintatzen. "Azeria eta belea"
(desagert.). "Aitite liberei ipaina kontatzen"
(bozetoa) eta "Belea" (bozetoa).



Ezkerrean, Victor Landeta Miliziarren umezurtzen etxean beharrean. Erdian eta Eskuinean, erroia eta gaztaia eta aitite kontu-kontari lanak.

txuko proiektua bertan behera gelditu zen. Ekainaren 16an Francoren armada Bilbora sartu zen herritar gutxi batzuen biba eta zantzoen artean. Oldarraldian Errepublikaren eta Eusko Jaurlaritzaren eginahal guztien aurka jo zuten. Miliziarren umezurtzen etxea helburuetako bat izan zen. Han galdu ziren euskal artistek Santutxuko eraikin hori apaintzeko egindako artelanak. Adituek diotenez, dendena suntsitu zuten, hala Landetarenak nola gainerako guztienak.

Hala ere, bada, orriotan ikusten dugun legez, lan haien arrastorik. Alde batetik, artista beharrean diharduela argazkia egin zioten eta hor muralaren zati bat ikusten da. Bestetik, erroiaren eta gaztaiaren alegiaren bozeto zati bat salbatu zen. Eta, azkenik, aititea bilobei kontu-kontari koadroaren olio bat



Saenz de Gorbearen liburua.

gorde dute. Saenz de Gorbeak argitu duenez, aititearen irudia

sortzeko bere aitite zena Eduardo Landeta Naberan eduki zuen gogotan margolariak. Landeta hura Atxuriko ospitaleko medikua izan zen.

Bilbo galduta, Landetaren pintore jarduna ez zen eten. Urte hartan bertan Pariseko Erakusketa Unibertsalean bere 'Pescadora' margolan jarri zuten ikusgai. Eta 1939an Frantziako hiriburuan bertan euskal artistek egin zuten erakusketa Landeta partaide izanik.

Ondoren, atzera be Bilbon zela, margolari gisa jarraitu zuen batez ere erretratuak, paisaiak eta euskal estanpak pintatzen. Bere lanik eza-gunen artean 'Pescadora', 'La loca de Ibarangelua' eta Bakioko zein Getxoko paisaiak daude ('El tilo de Basagoiti', 'Tempestad en Bakio', 'Bajando al Puerto Viejo'...). 1966an hil zen, Bilbon.

Kalderepeko

euskal kultur gunea

www.kalderepeko.com

txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BEGOÑA ETXERAN

ZARAN EREN OZGEE



Maiatzaren 12tik 21era bitartean egingo dituzte Zurbaranbarriko jaiak. Bost urtez baraurik eman ostean, iaz suspertu zituzten eta aurten are indartsuago datoz. Egitaraua luzatu dute hala egunetan nola edukietan eta proposamen berriak ekarri dituzte. Berbarako, Zurbararock, bertoko musika taldeak sustatzeko kontzertu sorta.

Testua eta argazkiak: BERTON

ZURBARANBARRIKO JAIK, GERO ETA INDARTSUAGOAK

Aurten Zurbararock jarri dute martxan bertoko musika taldeak sustatzeko asmoz

Zurbaranbarri auzoa jai giroan murgilduko da maiatzaren 12tik 21era. Asteburu bi izango dira, iazkoa hobetuz. Izan ere, auzoko jaiak iaz suspertu zituzten, 2000 urtetik egin barik zeuden eta. Iaz asteburu batez baino ez ziren luzatu. Gero eta indartsuago datoz, beraz, festak.

Jai Batzordean Kaixo konpartsa, Mendirakoi mendi taldea, Iturriondo areto-futbola taldea, auzoko koadri-la gazte batzuk eta boluntario ba-



tzuk elkartu dira. Aurtengo egitaraua gauzatzeko 8.000 euroko aurrekontua erabili dute. Diru iturri nagusiak denden emandakoa eta bonoen salmenta izan dira. Plazan hiru txosna paratuko dituzte, bat Jai Batzordearena, bestea areto-futbola taldearena eta hirugarrena Kaixo konpartsaarena.

Egitarauan adin guztietako pertsonentzako ekitaldiak antolatu dituzte: umeentzako olgetak eta tai-



goz egingo dute. Jaietako lehenengo asteburuan kontzertu bana egingo dute bariku eta zapatuan. Kontzertuko launa taldek joko dute. Hona hemen taldeen zerrenda: Los Whitos, Argamboys, Sparks, Euri Ttanttak, Reo, Prehistoria, Incoherence eta Driven.

Gainera, merkatutxo bat paratuko dute plazan bertan, talde horien eta beste batzuen materiala salgai ipintzeko: maketak,

lerrak, gazteentzako kontzertuak, helduentzako txapelketak, abesbatzen emanaldiak, antzerkia, ... Jai eremua auzoko plaza izango da.

Ekitaldien artean herri bazkariak berezko garrantzia dauka, auzoko jai giroa edertoen islatuko duena izango delako. Koadrirek eurek prestatuko bazkariaren inguruan hainbeste lagun elkartuko dira. Plaza bete jende espero dute antolatzaileek.

ZURBARAROCK

Jaiak gero eta sasoitsuago dabiltzala erakusten duen beste kontu bat Zurbararock dugu. Aurten lehenen-

kamisetak, ...

Bigarren asteburuan ere rock kontzertua izango da. Kasu horretan Segismundo Toxicómano izango da izar nagusia. Gasteiztar talde horrek punk estiloa jorratzen du. Bost disko argitaratuta daude, azkena 'Auschwitz 05' izenekoa.

Zurbararock antolatzeko orduan, jai batzordeak helburu nagusi bat eduki du gogoan: talde lokalei aukerak zabaltzea eta euren jarduna sustatzea. Edizio honetan ez dago Zurbaranbarri bertoko talderik, baina Incoherence taldean badago auzoko baten bat.

Zurbaranbarriko jaiak 2006

OSTIRALA 12

20etan Txupinazo- Jaitsiera.
22:00etan - Zurbararock: Los Whitos, Argamboys, Sparks, Euri Ttanttak.

LARUNBATA 13

12etan Umeetzako Berbena.
14:30etan Bazkaria.
16etan Herri Kirolak.
16etan Mus Txapelketa.
17etan Igela Txapelketa
18etan Dardo Txapelketa
21:00etan Zurbararock: Reo, Prehistoria, Incoherence, Driven.

IGANDEA 14

12etan Pintxo Txapelketa.
12etan Zankoak.
17:30etan Teatro
19etan Dantza erakustaldia. Reggaeton.

ASTELEHENA 15

19etan Bideo Proiekzioa.

ASTEARTEA 16

18etan Antzerkia.

ASTEAZKENA 17

18etan Emakumeek egindako tailerren erakusketa.

OSTEGUNA 18

18etan Umeentzako jolasak eta tailerrak.

OSTIRALA 19

18etan Graffiti erakusketa.
22etan Kontzertuak: Derive eta Segismundo Toxicómano

LARUNBATA 20

12etan Umeentzako jolasak eta tailerrak.

16etan Mus Txapelketa.

17etan Rokodromo Kukutza

17etan Igela Txapelketa

18etan Dardo Txapelketa

21etan Kontzertua. Txitxarrillo

IGANDEA 21

13etan Elizan, Abesbatzen kontzertua.

14:30etan Herri Bazkaria.

17etan Trofeo, sari eta zozketaren banaketa eta Amaierako Txupina.

Garraioak





Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOAI**



**Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak**



AXIER RUIZ:

"AEROGRAFIAREKIN ERREALISMOZ JOSITAKO AKABERA LORTZEN DA"

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona

*Aerografia airezko pistola bat erabilia margotzeko teknika da. Aerografoa da teknika honetan erabiltzen den tresna, pistola haue-
tan tinta sartzen da eta gailu batekin airea eta pintura erregulatzen
dira. Aerografoa ilustratzaileek erabiltzen dute eta Mahatserrian
Axier Ruizekin egin dugu topo. Berarekin bildu gara teknika hori
garatzeko web orri berri bat plazaratu duelako, zingirakaerogra-
fia.com, hain zuzen.*

"Margolari batzuek pintzelekin, beste batzuk espatulekin...margotzen duten bitartean guk aero-grafoarekin margotzen dugu", argitu du Axierrek. Aerografoek lodierarekin jokatzan dute, hala, marra lodi bat zein finagoak egin daitezke aparatu honekin. Aerosol modura irteten da pintura eta tek-nika hau difuminatuak egiteko oso egokia dela esan du Axierrek. Pintzel batekin, marra bat margotzen duzu eta aerografoarekin ordea, difuminatua.

Axier Ruizek ez du inongo eskolan ikasi aerografiaren artea, betidanik atsegin izan du eta modu autodidaktan ikasteari ekin zion duela hamar urte. Aerografoarekin motorrak, kaskoak, kotxeak... mar-

gotzen dira ez baita uhindurarik geratzen. Axierren esanetan "errealismoz jositako akabera lortzen da aerografiarekin, ez baita era lauan egiten".

Aerografiaren artean hainbat material konbinatzen da margotze-rakoan. Aerografoaz gain, pintzelak eta errotuladoreak... erabiltzen dituzte. Teknika batzuk daudela zehaztu digu Axierrek. Eskua goratu teknikan, berbarako, aerografo-arekin soilik egiten duzu marrazkia eta ez da bestelakorik erabiltzen. Bigarren teknika bat plantilak edo txantiloiak erabiltzea da. Txantiloiak marra lauak markatze-ko erabiltzen dira eta, adibidez, hizkiak zein dragoiak egiteko oso aproposak dira.

Eta hirugarren teknika gauza biak konbinatzean datza. Txantilo-i modura edozein gauza har daite-ke, Axierrek berak erregelak zein forma bereziak dituzten plastikoak erabiltzen ditu. Horiek kurbak egi-teko edo, esaterako, ezpainak eta hortzak margotzeko izan daitezke.

ERRETRATUAK

Aerografiarekin denetarik margotu daiteke. Axierrek aurpegiak, suak, burezurak, armiarmak... margot-zea du gustuko. Horrez gain, beira ere margotzen du (edalontziak, botilak, ...), aerografiak distirak margotzeko oso aproposa ei dela-ko. Animaliak, miniatuazko auto-ak, surf eta snow oholak, gita-rak... izan ere, gauza bitxiak ere



Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko Iturriaga 96.
herriko taberna


Gosari bereziak:
Katea+pintxoa 1,50 €.



Euskal Herria
AURRERA!!




JESUS GALINDEZ N.º 10
Tel: 94 473 62 26 GARAIZAR - BILBO



margotu ditu, esaterako, beso bateko protesia ere margotu du.

Gehien bat parapenteko kaskoak margotzen ditu. Batzuetan bezeroak berak esaten dio zein irudi nahi duen baina beste askotan berari uzten diote nahi duena margotu dezan. Pertsianak, dendetako kartelak, bizikleta koadroak... marrazten ditu kanpora begira. Barnealdean, etxeetako hormak eta muralak.

Graffitiak eta aerografiak antzekotasun handia dute. Graffiti azalera handiko lekuetarako da, abiadura eta arintasuna asko baloratzen duen teknika da. Aerografia, ordea, gauza txikiagoak margotzeko da. Aerografiarekin maketak margotzen dira, aeromodelismo, trenen eta kotxeen maketak...

Aerografoek tamaina ezberdina izan dezakete. Aerografoaren muturtxo handiagoa den heinean txorroa handiagoa da. Margolarien pistola ere erabil daiteke. Axierrek dionez, "018 da aerograforik onena eta bostehun euroko prezioa du. Besteek hirurehun bat euro balio dute".

Axierrek martxan jarri duen web orria (zingirakaerografia.com) aerografian diharduen jendeari edo eta hasi berri direnei zuzenduta dago. "Informazio gida bat da, nik orain arte jaso dudana informazioa (ilustratzaileak, aerografo motak, konpresore markak, ...) Mundu honi buruzko informazioa lortzea zaila da eta egun Internet asko eskertzen da". Web orriko beste atal batean Axierrek egindako hogeit bat lan daude ikusgai, jendeak nola egiten duen lan ikusgai dezan. Eta beste atal bat enkarguak zein aurrekontuak kontsultatzeko da.

Aerografoen topaketa bat besterik ez da antolatzen eta Italian egiten da urtero. Asierren esanetan, "Euskal Herrian hamar bat lagun bakarrik daude teknika hau erabiltzera dedikatzen direnak. Jendeak ikastaroak egiten ditu baina gehiago da maketa eta aeromodelismoari begira. Hemen ez dago margotzeko horrenbeste kultura Italian eta Alemaniarekin alderatuta".

Axierrek Boluetan du tailerra eta Mahatserrian egin ditu bere lanen erakusketak. Ekainak 24-

25ean ere Urduñan egingo diren parapente topaketetan Axierren lanaren nondik norakoak ikusteko parada izango dugu.


KONPRESORE

Axierrek, bere anaiaren laguntzarekin konpresoreak egin ditu, erosi beharrean. Su-itzalgailuen zein konpresoreen deposituak hartu eta berauei hozkailu edo aire hotzeko makinaren motore gehitzen die (gutxienez zaldi erdikoa behar du izan). Horri gupilak dituen edozein aparatua gehitu eta manometro bat eransten diote. Konpresoreak airea hartu, depositu barruan sartu eta hor biltzen du, ondoren, aerografoaren hodiari entxufatzen diozu. Konpresoreek zazpiehun euro balio dezakete, beraz, diru nahikotxo aurrezteko modua da. Horrez gain, Axierrek margotzeko kabina bat ere sortu du, kotxeak margotzeko kabinak bezalakoa da. Aire toki batetik sartu eta beste batetik irteten da, beraz, aire garbia duzu margotzen duzunean, usai gogorrek uxatzeko eta lakatzerakoan hautsa gera ez dadin ere erabiltzen da.

e l k a r r i z k e t a

ITZIAR GONZÁLEZ

"Jamaika paradisua izatetik oso urrun dago"



Hogeita hamar urteko begoñatar horrek, Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatu eta gero, hiru urte eman zituen Berlinen. Handik etorrira, EHUren Bakea eta Garapena kooperazio masterrean parte hartzera animatu zen eta horrek bi urtez Jamaikara joateko aukera eman dio, PNUDe (Nazio Batuen Garapenerako Programa) han duen bulegoan lan egiteko. Bidaia agentziek eskaintzen duten paradisua eta Bob Marleyren irudiak gogora ekartzen dizkigun ideietatik urrun, bestelako Jamaika bat ezagutzen ari da Itziar.

*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona*



D A K A R K A

Zertan ari zara Jamaikan?

EHUn Bakea eta Garapena masterra egin eta gero Nazio Batuek zuzenean lan egiten duten herrialde batera joateko aukera izan nuen. Ohikoa denaren kontra, ez nuen Hegoamerikako herririk aukeratu, nik Afrikara joateko gogoak bainituen, baina azkenean Jamaikara bidali ninduten eta hemen nago, abendura arte gutxienez.

Eta zehazki zein da zure lana?

PNUD (Nazio Batuak) Jamaikan garatzen ari den bi proiektutan lan egiten dut. Alde batetik genero gaiak lantzen dituen programa txiki bat garatzen egon gara. Unibertsitateko genero departamenduak pertsona ba-

tzuei emandako hitzaldiak dira, Kari-beko genero biolentziaren larritasunari buruz kontzientziatzeko. Beste garapen programak herritarren arteko elkarrizketa bilatzen du; jendea biltzea eta herriko arazoei buruz hitz egin ostean arazoei aurre egiteko elkartasunaren garrantzia ulertzea eta arazoak konpontzen saiatzeko borrokatzea.

Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gaur egun Jamaika komunitateetan banatzen eta antolatzen da. Komunitate hauek auzokideek osatzen dituzte eta haiek dira euren zonaldeko azpiegituren arduradunak, euren dirua jarriz ere. Horrek zera ekartzen

du, komunitate guztietan 'don' bat dagoela, komunitatean gertatzen den guztia, armen alokairua eta drogen trafikoa barne, kontrolatzen duena. Horregatik, PNUDei nahi duena, batez ere, herriko gobernu sistema garatzea da, alegia, komunitateen antolakuntza sistematizatzen laguntzea.

Zelakoa izaten ari da zure esperientzia?

Esperientzia oso ona izaten ari da. Jamaikan emandako urte bete beste edozein lekutan emandako urte bi baino gehiago da, hemen baldintza gogorretan bizitzea zer den ikasten duzulako. Zure mugimenduak kon-

trolatu behar dituzu eta Euskal Herrian ditugun egoerak baino askoz ere gogorragoak bizi behar direlako.

Adibidez?

Batez ere biolentzia eta hilketak dira kontu handiaz bizitzera behartzen zaituzten arrazoia. Jamaikak 2,5 milioi biztanle ditu eta Nafarroa bezain zabala da. 2005 urtean 1.600 pertsona baino gehiago erail zituzten. Horrek agerian uzten du zein larria den biolentziaren arazoa. Aurre krisi egoera baten daudela esan daiteke. Batez ere hiriguneetan, Kingston, Spanish Town eta Montego Bayn izaten dira biolentzia indizeirik altuenak.

Zergatik gertatzen da?

Nire ustez, oinarrian dagoena balore krisi itzela da. Oso herri matxista da eta hilketa eta biolentzia kasu gehienak generoaren arazo izugarria azalerraten dute behin eta berriz. Jamaikan, familia gehienak (% 80) ez dira batera bizi: ama batek eta aita ezberdinetako seme-alabek osatzen dute normalean familia. Emakumearen egoera oso larria da, batez ere hiriguneetan. Euren musikan ere, emakumeen irudia ez da ona, eta hitzetan asko azpimarratzen dute gizonarekiko bere mendekotasuna; oso letra erasokorrak izaten dira. Genero arazo horri, Jamaikako gobernuak komunitateak gidatzeko dituen baliabide eskasak, hezkuntza sistema orokor baten falta eta langabezi maila altua gehitu behar zaizkio.

Beste arazoren bat al dago?

Arrazakeria ere nabarmena da baina ez guk ulertzen dugun modura. Jamaikan hiritar zuriaren portzentaia ehuneko batera ere ez da heltzen eta bertan zuriak izan dira beti dirua izan dutenak, 'Up-town'en (hiriaren goialdean, lekuri pribilegiatuenean) bizi direnak. Horrek bi jarrera mota bultzatzen ditu. Alde batetik mespreza-

tzen zaituzten pertsonak daude: ongietorria ez zarela argi utzi nahi dizkizutenak eta gainera emakumea izateagatik eurentzat objektu bat baino ez zarela izango adierazten dutenak euren jarrerekin. Baina beste muturrean zurienganako makurdura edo otzantasuna adierazten dutenak daude. Zuria izateagatik positiboki diskriminatzen dutenak, adibidez beltzei sekula egingo ez zizkieten mesedeak eskainiz (supermerkatuko poltsak eramatea, adibidez).

Zein da Jamaikako egoera politikoa gaur egun?

Jamaikan monarkia parlamentarioa dago, baina kontutan izan behar da 1962 urtera arte Britainia Handiko kolonia izan zela. Harrez gero alderdi politiko bi nagusi izan dira irlan: PNP (People National's Party) eta JLP (Jamaican Labor Party). PNP 1989 urtetik boterean egon da, baina lehen ministroak hainbeste urte egin eta gero utzi behar duela esan du eta horregatik aurten hauteskundeak deitu dituzte. Deigarria da hautagairik nagusia emakumea izatea.

Eta nola da posible zuk esan bezalako hain matxista den herri baten?

Bada, beste arrazoi oso simple eta deigarri baten ondorioz: beltza delako; gezurra badirudi ere orain arteko lehen ministro guztiak mulatoak izan dira eta emakume hori, beltza izanik, herritarren babes handia osoa jasotzen ari da. Badago beste datu interesgarri bat honekin zerikusia izan dezakeena: oso harrigarria da Jamaikako hirietako emakumeen egoera larria ezaguturik, goi mailako ikasketak egiten dituzten 10 ikasleetatik 8 emakumeak direla jakitea. Hau da, ikasketako aukerak dituzten artean emakumeak dira nabarmen ari direnak eta ez gizonak.

Zure ustez zer egin



D A K A R K A



daiteke Jamaikaren egoera hobetzeko?

Nire ustez nazioarteko komunitateak badu zer egirik. Egia da momentuz herrialde batzuk Nazio Batuen programak babesten dabiltzala, batez ere orain arte bakarka aurrera eraman dituzten programak eraginkorragoak bihurtzeko asmoz. Batera lan egiteko borondatea dago, orain arte herrialde horiek bakoitza bere aldetik jokatu duelako eta, ondorioz, eragin txikia zeukaten. Orain laguntzak batera erabakitzen dira eta batera egiten da lan. Baina kontuz ibili behar da, turismoarekin lan iturri berriak sortzen ari badira ere, beste alde batetik azukre eta banana landaketak (irlako biztanleen orain arteko lana) amaitzen ari baitira, batez ere Europar Batasunaren diru laguntzak murrizten ari direlako. Eta horrek langabezia areagotuko du. Horren ondorioz droga trafikoa

nabarmen haziko da. Horregatik, beharrezkoa da, diru laguntza horiek kentzen badira, Jamaikaren benetako berpizkunde baten inbertitzea eta laguntzak zuzenean herritarren onurarako izatea.

Eta turismoak ez du hori bermatzen?

Ez, inolaz ere. Guztiz salagarria da gune turistikoak eraikitzeke saltzen ari diren lur eremuak kontutan izanda, erosleek herriarentzako baliabide edota azpiegituretan ez dutela deus ere inbertitzen. Eta, gainera, badira irlan interes turistiko itzelak dituzten herrialde batzuk (Espainia adibidez, momentuan irlan dagoen turismo eragilerik handiena) PNUDe programarik babesten ez dutenak. Ez dira konturatzen Jamaikako egoera hobetzen ez bada euren interesek ere kalte itzelak jasoko dituztela, inork ez duelako

nahi izango oporretan joan krisi egoera larrian dagoen herri batera.

Irudikatu duzun Jamaika topikoe-tatik oso urrun dago, hala al da?

Egia esan, bai. Reggae musika bera guk ezagutzen dugun moduan desagertu egin da eta gaur egun 'dance-hall' musika estiloa bilakatu da. Dance-hall egiten duten musikariek ez dute guk reggaearekin identifikatzen dugun 'rollo ona' transmititzen. Rastafariak egon badaude, baina irlan ez daukate protagonismo berezirik. Baina beste alde batetik irla bera paradisua da paisaia aldetik. Oraindik esplotatu gabe dagoen irla zatian leku zoragarriak daude. Eta gune horietan lasai bizi dira, ez da hiriguneetako biolentziarik; ez daukate bizitzeko gauza askorik baina eurentzat nahikoa da. Ez dute presarik edota gehiago izateko gogorik, lasai bizi dira.

Zortzi galdera labur

Liburu bat: *Malena es un nombre de tango*

Pelikula bat: La vida de Brian

Leku bat: Bilboko alde zaharra

Janari bat: Piper beteak (bakailaoz).

Abesti bat: 'Stairway to heaven'.

Izen bat: Muriel

Hondartza ala mendia?: Biak, momentuaren arabera

Amets bat: Pixka bat "gafea" naizenez, nahiago dut ez esatea

Behin eta berriz itsasoan hildako etorkinen albisteak entzutean zer sentitzen duzu?




MIREN ARGIA
(ALDE ZAHARRA)

TRISTURA HANDIA SENTITZEN DUT. OSO TXAR-TO EGON BEHAR DIRELAKO EUREN HERRIETAN, BIZITZA PATERA BATEN ARRISKATZEKO.



ANA
(GALDAKAO)

PENAGARRIA DA. EUREN HERRIETAN LANA IZAN-GO BALUTE HORRELA-KORIK EZ LITZATEKE GERTATUKO.




HARITZ
(SANTUTXU)

PLANETA HAU DENONDA ETA DENOK DAUKAGU BERTAN BIZITZEKO ESKUBIDEA BAINA HANDIEK AGINTZEN JARRAITZEN DUTEN BITARTEAN ARAZOA EZ DA KON-PONDUKO.



RAQUEL
(SANTUTXU)

PENA HANDIA EMATEN DIDATE. HALA ERE EZ DUT USTE GUK ASKORIK EGIN DEZAKEGUNIK.




JON
(SANTUTXU)

IRTENBIDEA EUREN HERRIETAN BILATU BEHARKO LITZATEKE, ETORTZEKO BEHARRIK EZ DEZATEN IZAN, INORI EZ BAITZAIO GUSTATZEN BERE HERRITIK ALDE EGIN BEHAR IZATEA.



JOSEBA, ANDER ETA ANDONI
(SANTUTXU)

OSO ALBISTE GOGORRAK IZATEN DIRA, LATZAK. HONA HORRELA ETORRI NAHI IZATEKO HAN ZELAN EGONGO DIREN!



ZUTOIA
(SANTUTXU)

EGOERA HORREK PENA EMATEN DIT BAINA BESTE ALDE BATETIK GERO ETA ETORKIN GEHIAGO HELTZEN ARI DELA IRUDITZEN ZAIT ETA GUZTI HAU NOLABAIT ERREGULATU BEHARKO LITZATEKE.

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak


Etxebarri-Zazpi Kale trenbide berriko lau geltokiak lur azpian egongo dira

Uribarrin, Zurbaranbarrin, Txurdinagan eta Otxarkoagan egingo dituzte

Etxebarri eta Zazpi Kaleak lotuko dituen trenbide berriko sei geltokitik lau (Begoñako errepublika zaharreko auzoetakoak hain justu) lur azpian atonduko dituzte. Honez gero non ipi-

niko dituzten ere zehaztu dute. Proiektua hamar hilabete barru eginda egongo da. Guztira, trenbide berriak 126 milioi euroko inbertsioa eskatuko du.

Metroaren hirugarren lerroa esaten zaio, izan Metroarena barik Eusko Trenena izango bada ere. Etxebarri eta Zazpi Kaleak lotuko ditu Begoñako errepublika zaharretik igarota. Eta ibilbide horretan lau geltoki edukiko ditu gurean: Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaranbarri eta Uribarri. Bada, laurak lur azpikoak izango dira, Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi dutenez.



Gabriel Aresti etorbiderearen artean eraikiko dute.

Gurean lau geltoki horiek edukiko ditu trenbide berriak. Horiez gain, Etxebarriko San Antonio auzoan geltoki berria egingo dute, agirian. Eta Zazpi Kaleetan oraingo Eusko Treneko geltokia eraitsi eta berri egingo dute Metroarekiko eta gaur egungo tren zerbitzuekiko loturak errazteko.

Uribarritik hasita, auzo horretako geltokiak sarbide handi bi edukiko ditu. Lehenengoa Trauku eta Berriotxo kaleen arteko kantoian zulatuko dute. Bigarrena, Maurice Ravel etorbidearen ondoko plazatxo baten agertuko da lur azalean. Hala ere, azken hori larrialdietarako baino ez da erabilgarri izango.

Zurbaranbarriko geltokia Lezamako Trenbide Zaharra kalearen eta Zurbaran bidearen artean paratuko dute. Esan dutenaren arabera, 'kobazulo tankerako geltokia' izango da eta atarte bi edukiko ditu, baita sarbide bi ere.

Estilo batekoak izango dira ere Txurdinagako eta Otxarkoagako geltokiak. Otxarkoagako Pau Casals eta Langaran kaleen artean atonduko dute tren geltoki berri hori. Txurdinagan, oster, Birjinetxe eskolaren eta

EPEAK

Euskal Trenbide Sareak (Eusko Jaurlaritzaren menpeko elkarteak) Fulcrum SARI esleitu dio trenbide berriaren proiektua idazteko ardura. Hamar hilabeteko epea eman dio horretarako. Ordainean, 1,1 milioi euro jasoko ditu enpresa horrek.

Denetara, 126 milioi euroko aurrekontua edukiko du trenbide berriko obrak. Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi dutenez, lanak hasi eta amaitu bitarteko epea 38 hilabetekoa izango da. Gauzak ondo bidean, 2010 urterako Etxebarri eta Zazpi Kaleen arteko trenbidea zerbitzuan egongo da.

Denetara, Zazpi Kaleetatik Etxebarrira arteko lerro hori 5.752 metro luze izango da. Euretari 4.352 metro lur azpiko tuneletatik egingo ditu trenak.




LARREAGABURU GAINEKO LANAK, UDAGOIENEAN.-

Bizkaiko Foru Aldundiak aurten egingo ditu Larreagaburu edo Miraflores gaineko obrak trafikoa errazteko. Hala igotzeko nola jaisteko bina karril paratuko dituzte eta biribilgunea zabalagoa izango da. Denetara 1,3 milioi pezeta gastatuko dituzte eta hasi, azaroan hasiko dituzte lanak.

AMAITU DIRA MASAJE ETA YOGA ESKOLAK.-

Apirilean amaitu dira Asapala euskara elkarteak antolatutako yoga eta masaje eskolak. Urritik hona hamaika saio eginda daude. Masajerako talde bi sortu ziren eta yogarako bat. Seguru gaur egun orain dela zazpi hilabete baino lasaiago eta hobeto bizi direla!



UDALETXE OSTEAN INDARTZE LANAK.-

Bilboko Udalak lanak hasi ditu Udaletxe osteko orubean bere sendotasuna segurtatzeko eta eskailek egoki ipintzeko. Izan ere, oraintsu arte aparkaleku gisa erabili izan bada ere, seguruago paratu gura izan dute udal arduradunek. Orube horretan Udal bulegoetarako beste eraikin bat egiteko asmoa daukate.

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos Instalador
Presupuestos Autorizado

J. Ruiz

*Obras, mantenimientos y reparacion de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y defecación bajo consumo
*Porteros automaticos y videominteros
*Aire acondicionado

Juan de Gissarola nº9 Ionia 48004 Bilbo Fax: 944111652-Tf: 656703853

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia

www.bilbohiria.com

MAIATZA

LANZAROTE	339 Euro
TENERIFE	358 Euro
GRAN CANARIA	350 Euro
PUNTA CANA	645 Euro
TUNEZ	384 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR
www.ibiltari.com

turistak 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Etxea

Arriaga 1 Santutxu

ADI
ASESORIA
FISCAL, CONTABLE, LABORAL
JURIDICO-MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza



IGOGAILUA, ZERURA.-

Horrelako irudi bitxia eskaintzen du azkenaldion Eusko Trenak Zumalakarregin daukan igogailua. Izan ere, inguruak atontzen dituzten bitartean, lehengo pasabidea kendu egin dute eta, ondorioz, igogailua zerbitzua eman barik dago. Obrak amaitutakoan, zabaldu egingo dute atzera be.

SOLOKOETXEKO ESKAILERAK, BERRIZTUTA.-

Bilboko Udalak amaitu berri ditu Solokoetxe eskailerak berriztatzeko lanak. Besteak beste, Gurutzearen Alaben ikastetxerako bidean mailak barik arrapala ipini dute. Behealde ere aldatu dute, zikinkeriarri lekuri ez emateko eta belarra zein zuhaitzak hobetu dituzte. Sei hila-bete eman dituzte obretan eta 400.000 euro gastatu dituzte.



BIRIBILGUNEA UDALETXE AURREAN.-

Bilboko Udaletxearen aurrean biribilgune berria egin dute. Horrela, leku guztietatik datozen autoak modu errazagoan zirkulatuko dutelakoan daude. Besteak beste, horrek dakartzan aldaketen artean dago zubitik Campo Volantinera jotzeko biribilguneko errebuelta osoa egin behar dela, lehen ez bezala.

Orueta Goikoa baserria erre da

Txurdinaga gaineko Orueta Goikoa baserria guztiz erre zen apirilaren 3an iziotutako sute baten ondorioz. Baserria hutsik zegoen eta horri esker inork ez zuen minik hartu. Suhiltzaileak bertaraino heldu eta sua amaitu zuten.

Orueta Goikoa baserria muino baten gainean dago, Garate bidearen eskuinaldean, Vera Cruz ikastetxetik ehunen bat metro gorago zuhazti batez inguratuta. Suaren abisua goizeko zortziak aldera jaso zuten larrialdietako zerbitzuek eta berehala abiatu ziren bertaraino hala suhiltzaileak nola udaltzainak.

Bertara heldutakoan baserria sugarretan topatu zuten. Suhiltzaileek ordubate behar izan zuten sua erabat amaitzeko. Bitarte horretan, udaltzainek bidea zarratuta eduki zuten. Baserriraino hedabideetako beharginei bakarrik utzi zieten pasatzen.

HUTSIK

Zorionez, suak ez zuen inor zauritu, etxea hutsik



zegoen eta. Edozelan be, sute benetan handia izan zen eta kea Bilboko bazter askotatik ikusi zen. Baserrian kalteak larri-larriak dira. Alde batetik, teilatua behera etorri zen. Beste aldetik, barrualdeko alderdirik gehiena kiskali egin zen. Izan ere, hormak izan ziren zutunik iraun zuten ia-ia bakarra.

Orueta izenarekin behintzat hiru baserri izan dira Begoñan: Orueta Bekoa, Orueta Erdikoa eta

Orueta Goikoa. Izan Orueta muinoaren izena da. 180 metro altu da. Orueta Goikoa Elorriaga familiarena izan da azken urteotan. Ez dira asko sasoi bateko Begoñako errepublikako baserri guztietarik zutunik irauten dutenak.

MAIATZAREN 5ean ostirala 19:30ean

Mundua LO dagoen bitartean PERFORMANCE

JATORRIZKO IDEIA: Patxi Zubizarreta
AKTOREAK: Nerea Garmendia-Iban Garate-Agurne Anasagasti-Mikel Losada-Felipe Barandiaran
MUSIKA: Joserra Senperena
IKUS-ENTZUNEZKOA: Ane Muñoz

HARRAPA ZANK

BILBO ROCK ARETOAN SARRERA 2EURO

Bilbao

SARRERA SALMENTA
 Zabalguneko Gazte Informazio Bulegoan
 Bilborocken emanaldi egunetan
 BBKren orotariko kuluzainetan

D E R R I K A R I A K I A R I A K I A R I A K

D E R R I K A R I A K I A R I A K I A R I A K



Txurdinagako futbol taldeak 25 urte bete ditu auzoko gazteekin lanean

Zilarrezko ezteiak egingo ditu aurton Txurdinagako futbol taldeak. Urteurrena ospatzeko, umeen futbol txapelketa antolatu zuten Aste Santuan, eta nagusientzat beste bat egingo dute udan. Jokalarien esa netan, aldagelako giroa bikaina da eta "gero eta euskaldunagoa".

Testua: Dabi Piedra

Argazkia: Txurdinaga Futbol Taldea

25 urte luze joan dira jada CD Txurdinaga futbol taldeak bere ibilbidea hasi zuenetik. Hala ere, jatorria urte bete lehenago dauka, 1980an, izan ere, urte hartan Jesus Mari Villaluenga, Villa, Txurdinaga Bekoa institutuko irakaslea zen eta ikasle talde bat bildu zuen eskolarteko txapelketa batean parte hartzeko. Txapeldunorde geratu ziren eta arrakasta ikusita, Villak berak Club Deportivo Txurdinaga izeneko jubenilen taldea sortu eta federatu zuen 1981ean, aurten 25 urte. Villa izan zen hasiera hartan taldearen ardatza, mutilak biltzeaz gain, presidentetzale eta arduradun bakarra baitzen, gastu asko berak ordaintzen zituen, eta klubaren egoitza soziala bere etxean bertan ezarri zuen.



Txurdinaga futbol taldeak eduki zuen lehen ekipo jubenila. Ezkerrean, bizarraz, Villa. 1981 urtea.

taldearen filosofia auzoko ume eta gazteei ondo pasatzeko aukera eskaintzea baita nagusiki, kirol emaitzak bigarren mailan utzita.

Nolanahi ere, 25 urteak ospatzeko, datorren denboraldian nagusien taldea Lehenengo Erregional Mailara igotzeko helburua dute. Etorkizunari begira baikor dira, gainera, laster belar artifizialeko beste futbol zelai bat ere izango baitute, oraingoaren alboan. Zailtasun nagusiak, ostera, jokalaririk erakartzerako orduan izango dituztela aurreikusuten dute, Txurdinagan gero eta ume gutxiago dago eta. Emakumezkoen taldea egiteko asmoa ere izan zuten eta neska nahikorik ez

zegoelako ezin izan zuten talderik atera, Villa presidente ohiaren esanetan.

Umeak erakartzeko, denboraldi hasieran kartelak jartzen dituzte auzoko kaleetan, taldean parte har dezaten gonbidatuz. Lehen taldea, aldiz, behe mailetatik datozen jokalariekin eta haien lagunekin osatzen dute. Gazteek Txurdinaga aldera jotzen dute, jokalarien arteko giroa oso ona delako eta lagun artean sentitzen direlako. Nagusien taldean, gehienak unibertsitate ikasleak dira eta nabarmendu dutenez, ia gehienek euskaraz dakite eta giro euskalduna egon ohi da aldagelan.

OSPAKIZUNAK

Denboraldi honetan eta hurrengoan, 25. urteurrenari lotutako zenbait ekintza prestatu ditu Txurdinagako zuzendaritzak. Aste Santuan, infantil mailako 'I. Txurdi Cup' futbol txapelketa ospatu zen, hainbat talderen partehartzearekin (Arrigorriagako Padura izan zen txapelduna). Uda parterako, antzeko beste bat prestatu nahi dute, Nagusien mailan, eta sari banaketarako Julio Ibarra ekartzeko asmoa azaldu dute. Izan ere, kazetari mahatsorria Txurdinagako futbol taldean ibili zen gazetetan. Era berean, 25. urteurrena ospatzeko oroigarriak ere atera dituzte: Urtebetetzea gogoratzen duten kamiseta eta insignia bereziak egin dituzte eta klubak Mahatserriko futbol zaleentzat salgai jarri ditu. Urteurrenaren ikurra talde nagusiko jokalariek diseinatu dute, CD Txurdinagaren armarrria oinarri hartuta.

GARAI BERRIAK

Garaiak aldatu dira eta gaur egun auzoan bertan daukate belar artifizialeko futbol zelai dotorea, entrenatu eta jokatzeko. 90eko hamarkadaren hasieran egin zuten Txurdinagako zelaia, eta ordutik nagusien taldea ere badaukate, Eskualde Mailan. Hala ere, talde oso apala da Txurdinaga, oraindik ere jokalarien laguntzari esker bizi dena. Bazkiderik ia ez daukate eta diruz larri dabilta. Kirol arloan ere, lorpen txikiak baino ez dituzte,

PICO DE LA CRUZ EDO GASTERAN (803 M.) GUEÑES

Gueñesetik Galdameserantz doan errepidean hiru kilometrotara gutxi gora behera, bihurgune handi batean txabola bat dago erreka ondoan. Hori da gure ibilbidearen abiapuntua.

Handik zementuzko basabide edo pista bat irtetzen da. Basabide horretatik jarraituko dugu. Laster Amabizkar auzoko baserri bat ikusiko dugu eskuinean eta apur bat geroago lastategi handi bat ezkerrean.

Apur bat gorago, basabidea bitan banatzen da, ezkerrekoa Galdamesko Illeta auzora doa eta guk bestetik igoko dugu, ia-ia beste baserri bat aurkitu arte. Baserri heldu baino ehun metro lehenago eskuinetik irtetzen den bidexkatik jarraituko dugu aterpe bat aurkitu arte. Ezkerretarantz berrogeita hamar metro gutxi gora behera eginda pinudia dago, eta hantxe bertan iturri bat. Bertaraino gure bidea eta Eretzarakoa bat dira.

Handik gure eskuinean Eretza mendia ikusiko dugu, baina guk ezkerretarantz jarraituko dugu pinudiaren ondotik. Handik bidea apur baten behera doa, laster lepo txiki bat ikusi eta eskuinaldean utziko dugu. Apur bat geroago aurrekoa baino handiagoa den beste lepo batetik igoko dugu. Bere tontorrean lautada txiki bat dago. Leku horretatik beherantz eta ezkerretarantz doa bidea, harrikaitzegira heldu arte. Handik gora harri artean igoko dugu tontorreraino (803 m.).

Tontorrean izena ematen dion gurutzera ikusiko dugu, bertako izen zaharra Gasteran baita, nahiz eta egun izen hori ondoan dagoen lepoa izendatzeko era-



bili. Tontorretik Grumeran edo Alta de Galdames mendilerro osoa (Triano oker esaten zaiona) ikusi ahal dugu eta bertako meategi zaharren aztarnak. Mendi horretan bertan, Galdameserako bidean, baina amildegia erdian, Europa izeneko meategiaren aztarnak ikus ditzakegu.

Sastrea EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
 Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro
 Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
 GABRIELARESTI, 30 4. G
 TXURDINAGA
 94 412 82 74
 O.P.E: 02/9/97

MESÓN
URETXE
 Santutxuko poteo gunean



TXURDINAGAKO UMEENTZAKO JARDUNALDI JENDETSUAK

Aurten hamahirugarren edizioa bete dute Txurdinagako umeentzako jardunaldiak. Aste Santuko oporren gerizan (aurten apirilaren 8an eta 9an) auzo horretako eskaut taldearen eskutik hamaika joko eta ikuskizun eduki zuten Txurdinagako umeek Artazuriña kalean. Erantzuna ere polita izan zen, txikiak ez ezik, aita eta ama asko agertu zirelako. Aitiite-amamak be ez ziren faltatu. Orrialde honetako argazkietan, Begoñazpi eta Kirikiño ikastoletako umeek egindako dantzaldiak.



Euskararen Aste arrakastatsua

Apirilaren lehenengo astea gaztetxoaren artean euskara zabaltzeko erabili zuten Txurdinaga eta Santutxuko hamasei ikastetxek eta hainbeste elkartet. Igarri, igarri zen, hala eskola eta ikastoletan nola Santutxuko plazetan ekitaldi asko egin zituzten eta.

Ikastetxe bakoitzak bere alde-tik euskararen erabilera sustatzeko ekitaldiak antolatzen dituzte arduraz eta konpromisoarekin hartu zuten. Horrez gain, eskolen arteko ekimen asko ere egin zituzten egun horietan. Batzuk xumeagoak, eta beste batzuk, osterara, jendetsuagoak. Kantu lehiaketetan, berbarako, ehunka ikasle batu zituzten denak batera abestiekina gozatzeko.

Jakinaenez, ikaslearen artean euskararen erabilera indartu gura dute antolatzaileek. Izan ere, ez da nahikoa eskolan euskara ikastea. Gurea lako inguru erdaldunduan umeek erdarako presio askoz handiagoa daukate eta euskara galtzaile ateratzen da gehienetan. Horregatik, ikasgelatik kanpo ere euskara hizkuntza bizia dela erakutsi gura dute bultzatzaileek. Euskaraz ere ondo pasa dezaketela, alegia.

MENDIRA

Aurtengo Euskararen Astearen berezitasuna Santutxuko elkarten inplikaziotik etorri da, aurreko urteetan baino gehiago izan direlako euren ekarpena egin dutenak. Besteak beste, goiko argazkiko mendi martxa nabarmendu daiteke. Apirilaren 1ean mendizale multzo bat aldatsean gora hasi eta Malmasineraino igo zuen. Egun horretan bertan hasi zen Euskararen Astea kalejira batekin eta Arkaitz Estiballes



Santutxuko Mendi Taldekoak Malmasinen

bertsolariak irakurritako pregoiarekin.

Ekitaldi arrakastatsuen artean, Jon Maiak emandako hitzaldia dago. Zumaia-ko idazle eta bertsolariak 'Riomundo' bere nobela aurkeztu zuen Asapalaren 'Irakurlearen Tartean' eta areto bete-jenderen aurrean egin zuen.

Udaberriko bertso

Santutxuko Bertso Eskola
Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Saila

maiatzak 6-13-20-27

2006 aioak

6 ematez
Amets Arzallus
Jon Maia
Unai Iturriaga
Xabier Amuriza

13 ematez
Jokin Sorozabal
Jokin Uranga
Joxe Agirre
Sebastian Lizaso

20 ematez
Andoni Egaña
Arkaitz Estiballes
Fredy Paya
Oihana Bartra
Xabi Paya

27 ematez
Aitor Mendiluze
Igor Elortza
Maialen Lujanbio
Sustrai Colina

GAIK
Santutxuko Bertso Eskola

ORDUA
13:00etan

LEKUA
Santutxuko Karmelo Plazan

BECetik KARMELO PLAZARA

**Maiatzeko lau zapatutan zehar
Udaberriko bertso saioak egingo dituzte**

**Aurten ere Santutxura hurbilduko dira
Euskal Herriko bertsolaririk onenak:
Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen
Lujanbio, ... hamasei orotara! Maiatzaren
lau larunbatetan egingo dituzte 2006ko
Udaberriko Bertso Saioak. Horrela,
abenduan BECen bat egin zutenek
Karmelo plazan egingo dute topo.
Hitzordua, zapaturu, eguerdiko
13,00etan hasita.**

**Testua: Iratxe Ruiz
Argazkiak: BERTON**

Maia, Unai Iturriaga eta Xabier Amuriza izango dira; hurrengo zapatuan Jokin Sorozabal, Jokin Urangak, Joxe Agirrek eta Sebastian Lizasok kantatuko dute.

Hilaren 20an txapelduna etorriko da Mahatserrira: azken urteko Bertso Txapelketa Nagusian txapela jantzi zuen Andoni Egaña arituko da, Arkaitz Estiballes eta Oihana Bartra mahatsorriarekin batera. Iragarritako zegoen arren, azken orduan, Fredy Payak ezin izango du etorri.

Azken bertso saioa maiatzaren 27an izango da eta bertan Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Sustrai Kolina arituko dira. Aurreko edizioetan bertso saio musikatuak ospatu izan dira azken egunean, kontraz, aurten laugarren bertso saio bat izango da.

POZIK GUREAN

Asko dira beste behin ere Santutxuko Udaberriko bertso saioetara etorriko diren bertsolariek. Pozik errepikatzen dute gainera. Saioak desberdinak direlako erabat: ordutegia esaterako, bertso-saio gehientsuak arratsalde-iluntze partean izaten dira, Matsaherrian berriz, bazkalarrean, arratsaldeko 13,00etan.

Halaber, beste jai batzuen osagarri ez direlako maiatzaren dituzte. Hau da, Bilboko Jaien itzalean ez direlako antolatzen, eta Karmelora joaten dena bertsoak entzutera doalako, beren beregi. Hori asko eskertzen dute!

Bertso eskolako kideek prestatzen dituzten 'bertso paperak' ere bereizgarriak dira. Kantatzen ari diren

berton

bertsolariei buruzko bertsoa idazten dute eta papera publikoaren artean banatzen da akabuan denak batera kantatu ahal izateko. Ostean, bertsolari bakoitzak erantzun behar dio jendeari. Publiko eta bertsolarien arteko inplikazio horrek, taularen gainean eta behean daudenen artean konplizitatea pizten du.

Baina arrisku baten menpe izaten dira saioak: eguraldia. Aterpe baten estalpea ez edukitzeak saioaren arrakasta edota porrota erabaki dezake eta.

OTSAILETIK

Bertso eskolako arduradunak otsai-



Karmeloko bertso plaza.

lean hasten dira saioak atontzen, Udalarekin elkarlanean. Jende ugari biltzea espero dute eta horretarako bi argudio sendo igortzen ditu Joxerra Bilbako: "Euskal Herriko bertsolaririk onenak Karmelon elkartuko ditugu, BEC-en egon ziren danak", honenbestez, saioen kalitatea ziurtatuta dago.

Eta bigarrenik, "Karmelo plazara ailegatzea oso erraza da, metroko geltokiaren ondoan baitago. Gure desioa da bertsozale ugari batzea Karmelon!". BERTON, gutxienez, han izango da!

**Unai Iturriaga Karmelo plazan
iazko saio baten.**



Amets Arzalluz ere iaz izan zen Santutxun.

Bi hamarkada baino gehiago daramate Santutxuko Bertso Eskolak eta Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Sailak udaberrian, loreak agertzearekin batera, bertsoak bizkaitar hiriburura ekartzen. Urteotan jaialdia hainbat lekutan izan da: Aretazako kioskoan, Bidebarrietako liburutegian eta Kafe Antzokian.

Baina bertsoak kalera atera behar zirelako apustua egin zuten eta Deustura eraman zituzten ekitaldiak. Aurten, hirugarren urtez jarraian Santutxun izango dira. Arrazoiak? Jendearen erantzuna ona izan delako, eta gero eta bertsozale gehiago hurbiltzen delako Karmelo plazara. Lehengo urtean 570 pertsona egon zen, eta iaz 725. Antolatzaileek aurten mila pertsonako muga gainditzea espero dute.

MILA












Helburua hori da, mila bertsozale elkartzea eta horretarako antolatu duten egitaraua aiposaren artean aiposena da: maiatzaren 6an Amets Arzalluz, Jon

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa

-  **Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**
Isil-isilik zagoz, kaia barrean, maite txuri polit bat uraren gainean... Badakizu, ezta?
-  **Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**
Atrapa olatua, lagun, osterantzean berak atrapako zaitu eta!
-  **Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**
Ez dira izango zuk nahi zenduzanak. Abisatuta zagoz. Baina ondo dagoz, ez larritu. Aukeran edukiko dozuz.
-  **Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**
Dotore-dotore egongo zara. Eskerrak ondo aukeratzeko sen genetikoa dekozuela.
-  **Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**
Lehenengo eguzki printzak agertu eta atoa jantzi dozuz udako arropak. Hasta el cuarenta de mayo...
-  **Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**
Hainbeste arropa erosi eta gero, astirik eukiko dozu hori dana jazteko?
-  **Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**
Moda-modako lokalak ez jatzuz gustetan. Bale. Baina Kristoren legionarioekin aste santua emotea be!
-  **Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**
Bloga zabaldu dozu, lerro bi idatzi eta ideiak agortu jatzuz. Zer kontatu gitxi dekozulako izango ete da?
-  **Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**
J'Mihiluze' ikusten dozunik berba jariora aberastu jatzu, duda barik. Kontua da orain ez dogula esaten dozunaren erdia be adituten!
-  **Capricornus: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**
Baten batek jakingo dau mundialak etxeko telebistan doan ikusiko doguzan. Gero geuri esan.
-  **Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**
Mobilean idazten dozun guztiagaz liburu pare bat egin leike, lodi-lodi ganera.
-  **Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**
Churchill ha bere odol, izerdi eta negar anpuluakaz ikusi gura neuke geure lekuan. Ezetz agoantatu!

D A D A T O Z I

agenda

MAIATZAK 5:
: 'MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN'.
HARRAPAZANK KANPAINAREN AZKEN
EKITALDIA. BILBOROCK. 19:30EAN.

MAIATZAREN 5 ETA 6:
DOCTOR DESEO. KONTZERTUAK. KAFE
ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

MAIATZAK 6:
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK. BERTSO
SAIOA. KARMELO PLAZAN. 13:00ETAN.

MAIATZAK 12:
HERRIRA PLATAFORMAREN
MANIFESTAZIOA. RITXI PLAZA.
20:00ETAN.

MAIATZAREN 12-21:
ZURBARANBARRIKO JAIK. HILAREN
12 ETA 13AN, ZURBARAROCK. AUZOKO
PLAZAN.

MAIATZAK 13:
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK. BERTSO
SAIOA. KARMELO PLAZAN. 13:00ETAN.

MAIATZAREN 20-21:
ASTEBURUKO MENDI IRTEERA. ALTO
CAMPOO. SANTUTXUKO MENDI
TALDEA.

MAIATZAK 20:
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK.
BERTSO SAIOA. KARMELO PLAZAN.
13:00ETAN.

MAIATZAK 26:
SANTUTXUKO JAIETARAKO KARTEL
LEHIAKETARA LANAK AURKEZTEKO
AZKEN EGUNA.

MAIATZAK 27:
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK. BERTSO
SAIOA. KARMELO PLAZAN.
13:00ETAN.



Elorrieta
Erreka Mari
I.E.F.P.S./G.B.L.H.I.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BATXILERGOA

teknologikoa A eta D ereduak
humanistikoa A eredu

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi eta erdi mailak
A eredu

Informatika
Elektrizitatea
Merkataritza
Administrazioa

D ereduan ere!

AURREMATRIKULA
Apirilaren 24tik maiatzaren 5erarte (barne)
Lehendakari Agirre 184 Tfnoa. 944028000






www.elorrieta-errekamari.com